

### HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO LITERATUR LEHIAKETAK 1995

1995ean haur eta gaztettoentzako literatur lehiaketen bigarren edizioa antolatu zuen Lezoko Udal Liburutegiak. Oro har 177 lan aurkeztu ziren: 161 ipuin eta 16 olerki. Bestalde, adin taldeen arabera lan horien banaketa honako hau izan zen: 6-8 urtekoen mailan 91 ipuin eta 4 olerki, 9-11 urtekoen mailan 53 ipuin eta 5 olerki, eta 12-14 urtekoen mailan 17 ipuin eta 7 olerki.

Ondoren, saritutako egileen zerrenda eta lanen argitaraldia duzu.

#### “II. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK” (1995)

- ▶ (6-8 urte) **Mikel Couceiro Guerra**: “Erlea eta loreak”.
- ▶ (9-11 urte) **Mikel Rodriguez Montero**: “Bizikletak”.
- ▶ (12-14 urte) **Xabier Arregi Urkizu**: “Munttergo akelarreak”.

#### “II. JON GARBIZU OLERKI SARIAK” (1995)

- ▶ (6-8 urte) **Garikoitz Zabaleta Fernandez**: “La, le, li, lo, lu”.
- ▶ (9-11 urte) **Amaia Leunda Arrizabalaga**: “Lagunak”.
- ▶ (12-14 urte) **Larraitx Aranburu Salaberria**: “Urte sasoiak”.

### Erleak eta loreak



Behin batean bazen erle bat gosez zegoena. Joan zen mendira eta oso-oso politak ziren lore batzuk ikusi zituen.

Lore baten gainean jarri zen eta zurgatu egin zuen. Oso zapora ona zeukan lore horrek. “Zenbat, zenbat lore dauden!”, pentsatu zuen erleak. Orduan bere lagunei esatera joan zen azkar.

Hortik aurrera erlea eta bere lagunak hara joaten ziren edatera, eta ezti pilo bat izan zuten negu osorako.

**Mikel Couceiro Guerra**  
7 urte

## Bizikleta




Bazen behin bizikleta bat, beti bakarrik ibiltzen zen eta Felix izena zuen. Oso triste zegoen, ez zuen lagunik, garaje abandonatu batean bizi zen Getaria izeneko herrian. Bizikleta ondo zegoen baina ez zuen kolorerik ezta gurpilik ere. Ez zuen inork erabiltzen bizikleta.

Egun batean gizon bat pasa zen garaje ondotik, bizikleta ikusi eta hurrengo egunean margo pote eta gurpil batzuk hartu eta bizikleta konpontzen hasi zen. Hurrengo egunean bakarrik gurpilak jartzea falta zitzaion. Bi edo hiru egun pasa ondoren bizikleta konponduta zegoen eta probatzera joan zen.

Oso ondo zegoen, primeran, eta hortik aurrera beti ateratzen zuen bizikleta. Lagunak zituen, ez zen triste jartzen eta ondo bizi zen.

**Mikel Rodriguez Montero**  
10 urte

## Munttergo akelarreak



Garai hartan jendearen ahotan sorginak eta sorginen akelarreak beste ezer ez zebilen katean. Gauetan sorginak etxeetara ez sartzeko ate eta leiho guztiak ondo ixteko esan zuen apaizak igandeko meza nagusiko sermoian. Astelehen gauean ez zen inor kalera aterra. Asteartean Olatzarko familia iratze ximela bila joan zen, eta bi idi-gurdi bete-beteak ekarri zituzten etxera. Arratsaldeko zazpitan amonak sega bat falta zela esan zuen, eta aitonak, Muntterren ibili baziren iratzetan han ahaztuta utziko zutela esan zuen, eta bila joan zen etxean zuten hemeretzi urteko alaba gaztea. Gaua heldu zen eta neska ez zen inon ageri. Sukaldean sutondoan denak neska sorginek beraien akelarrenen batetara eramango ote zuten pentsatzen ari ziren, eta halako batean "zass!", sega tximinitik behera sartu zen, eta kanpoan oihu bel-dugarri hauek entzuten ziren:

- "Gaua gauezkoentzako eta eguna egunezkoentzako, beraz neska guretzako".

**Xabier Arregi Urkizu**  
14 urte

## La, Le, Li, Lo, Lu



La, la, la  
gelako arbela.  
Le, le, le,  
mendiko bele.  
Li, li, li,  
kaleko euli.  
Lo, lo, lo,  
ipurdiko zulo.  
Lu, lu, lu,  
etxeke katilu.

***Garikoitz Zabaleta Fernandez***  
***6 urte***

## Lagunak



Lezoko bi neskatxa  
atzo haserre  
gaur adiskide,  
urteak joan urteak etorri  
nonnahi elkarrekin,  
ametsetan biak batera  
kezkarik gabe ohera.

***Amaia Leunda Arrizabalaga***  
***11 urte***



## Urte sasoiak

Udaberria

Udaberria heldu da  
dena kolorez betea,  
edertasuna da jabea  
pozik dago jendea,  
laister irekiko da  
udaren atea.

Udara

Hondartza dago betea  
eguzkia nagusi da,  
fina da haizea  
zeru urdinean,  
txoriak lasai daude  
beren habitxoetan.

Udazkena

Uda bukatu da  
dena marroitua,  
triste dago jendea  
pozik dabil haizea,  
hosto guztiek dute  
urre kolorea.

Negua

Elurra dago teilatuan  
zeruan berriz lainoak,  
den-dena txuri dago  
jendea etxean,  
denbora aurrerantz doa  
udaberria bueltan.

**Larraitz Aranburu Salaberria**  
**13 urte**